

## Goi Eskola Politeknikoak segurtasun informatikorako alerta-sistema bat sustatu du

2009/02/10

Goi Eskola Politeknikoko Telematika eta Segurtasun taldea, Gipuzkoako Foru Aldundiren diru-laguntzarekin, eraso informatikoengatiko alerta-sistema bat diseinatzen ari da. Euskalert da proiektuaren izena, eta makina tranpen sare bat sortzeko asmoa du Euskadin, Sareko jarduera gaiztoak behatzeko helburuarekin.

Pirateri iruzur egitean datza, piraten erasoak nola funtzionatzen duten ikusteko eta horrela erasoak saihestu ahal izateko. Gainera era honetan ez dago erasotua izan den produkzio sistema bat aztertzeak duen kosturik. Euskalert-ek denboraz funtzionatuko duen alerta-sistema bat izatea ahalbidetuko die enpresa eta erakundeei, baita erabilera zientifikoa duten erasoen biltegi zentralizatu bat izatea ere.

